

Ebazpena: R1/2024
Espedientea: 41/2020

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 30ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean, ZAEA) planteatutako gatazkari buruzkoa; zeinaren helburua baita zehaztea VB zergapekoak 2015etik 2018ra jasandako BEZaren kuotak ordainarazteko eskumena. Gatazka hori 41/2020 espediente zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1.- VB egoitza soziala eta fiskala Suedian dituen sozietatea da, eta kamioiak eta beste ibilgailu astun batzuk fabrikatzen ditu.

2022ko apirilaren 1etik Espainiako lurraldean dihardu, establezimendu iraunkorrik gabe.

2.- 2002ko martxoaren 4tik, hark VTSA (gaur egun VGESA) izendatu zuen BEZaren betebeharretarako ordezkari gisa.

2015etik 2018ra bitartean, erakundeak araubide orokorrean aurkeztu zituen BEZaren aitorpenak, eta Espainiako ogasunari bakarrik ordainduta.

3.- IRIZAREk Gipuzkoan du egoitza fiskala eta GFari bakarrik ordaintzen dizkio zergak.

4.- 2019ko ekainaren 14an, ZAEAk VBri jakinarazi zion irismen partzialeko ikuskapen-prozedura bat abiarazi zuela (jasandako BEZaren kuota kengarrietara mugatua) 2016ko urtarriletik 2018ko abendura bitarteko aldiei zegokienez (2015eko irailetik eta 2015eko abendura bitarteko aldira luzatu zen).

Jarduketan emaitza 2020ko urtarrilaren 14ko adostasun-aktan jasota geratu zen.

ZAEAk ez du zalantzan jartzen establezimendu iraunkor bat egon daitekeenik.

ZAEAREN arabera, honako hau da operatiba:

- VBk bere ondasunak —autobusen txasisak— besterentzen ditu (BEZLren 16.2 artikuluko Europar Batasunaren barruko ondasun-eskurapenekin parekatutako eragiketa; BEZLren 26.Lau artikuluan salbuetsita dago) zergaren aplikazio-lurraldera horiek fabrikatu diren lekuetatik (Suedia eta Polonia).
- Txasisak karrozerian espezializatutako enpresen instalazioetan uzten dira.
- Lanak amaitu ondoren, karrozeria-enpresak bere zerbitzuak fakturatzen dizkio VBri, eta horrek ibilgailua saltzen dio azken bezeroari, zergaren aplikazio-lurraldean.

ZAEAREN ustez, VBk ez zuen BEZa jasanarazi behar bere salmentetan, subjektu pasiboaren alderantzizkatzea egin behar zelako BEZLren 84.Bat.2 ex artikuluari jarraikiz.

Bestalde, ZAEAREN ustez (ondasun higigarrietan obrak gauzatzeari buruzko arauak aplikatu ondoren), karrozariak zerbitzuak ematen dituzte, eta ez ondasunak. Beraz, ez lirateke zergaren aplikazio-lurraldean kokatuko, BEZLren 69.Bat.1 artikulua arabera, eta, horregatik, jasanarazpena bidegabetzat har liteke.

Hala ere, karrozarien lanak ondasun-emateak balira, itzulketa BEZLren 119. artikuluko prozedurari jarraikiz egin beharko zatekeen, eta hori GFARI egokituko litzaioke.

Ondorioz, ZAEAk ez du onartzen jasandako BEZaren kuoten kenkaria (IRIZARek bidegabe jasanarazi zituelako), eta erregularizazio osoaren irizpidetzat hartzen du hura itzultzeko eskubidea, hori GFARI dagokiola uste badu ere.

5.- 2020ko otsailaren 19an, IRIZAREk urte horietan jasanarazitako kuotak (1.872.483,90 euro) itzultzeko eskatu zion VBk GFari, eta ZAEAk hasitako aktaren kopia erantsi zuen.

6.- 2020ko uztailaren 7an, GFAk inhibitzeko eskatu zion ZAEARI, VBk, IRIZAREk jasanarazita, jasandako BEZaren kuotak ordainarazteko eskumenagatik.

7.- 2020ko abuztuaren 11n, ZAEAk GFaren inhibizio-errekerimenduari ezezkoa eman zion.

8.- 2020ko irailaren 4an, GFAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, eta gatazka hori prozedura arruntari jarraituz izapidetu da, 41/2020 espediente-zenbakiarekin.

9.- IRIZAREk prozeduran agertzeko eskatu du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak onartu egin zuen 2023ko urriaren 18an.

IRIZAREk ondorioen idazkia aurkeztu du eta entzunaldi-izapideari uko egin dio; era berean, Auzitegi Gorenak 2023ko ekainaren 7ko Epaian (ECLI: ES: TS: 2023:2611) adierazitako irizpideari jarraikiz ebazteko eskatu du.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat. artikuluan xedatutakoaren arabera, artikuluko horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Gatazkaren xedea.

Gatazkak prozedurazko hainbat gai ditu (Ekonomia Itunaren 47.Hiru artikulua aplikatu behar ote den, erregularizazio osoari buruzko jurisprudentzia aplikatu behar ote den eta BEZLren 29.Sei artikuluekin bateragarritasunik ote dagoen), baita zenbait gai substantibo ere (karrozeria-eragiketak ondasun-emateak edo zerbitzu-emateak diren zehaztea, eta VBk establezimendu iraunkorrekarekin edo gabe jarduten duen zehaztea).

Nafarroako Arbitraje Batzordeak 143/2021 gatazka ebatzi zuen 2022ko otsailaren 18an. Hark ere xede eta zergapeko berberak zituen, desberdintasun batekin: S enpresa zen karrozaria (enpresa horrek Nafarroako Lurralde Ogasunari bakarrik ordaintzen dizkio zergak).

Auzitegi Gorenaren 2023ko ekainaren 7ko Epaiaren bidez berretsitako ebazpen horretan (ECLI:ES:TS:2023:2611) ez ziren aztertu BEZaren neutraltasuna mantentzeko premisei buruzko gai substantiboak (jasandako BEZaren kuotetan kenkariak ahalbidetuz), ezta ZAEAREN koherentziarik eza ere; izan ere, eragiketa guztietarako establezimendu iraunkorra dagoela onartu zen, Iren karrozari-jarduketarena salbu. Horrela, balizko gatazkaren ondorioetarako (ZAEAK VBren eragiketa guztiak erregularizatu ahal izatea ezertan eragotzi gabe), erabaki zen zergak establezimendu iraunkor gisa ordaintzea (horrela, ez dago zertan eztabaidatu karrozari-jarduketarena establezimendu iraunkorra edo zerbitzu-ematea den), eta, beraz, ZAEAK bere gain hartzea VBri itzuli beharrekoa.

Arbitraje Batzorde honek adierazi nahi du, aurrekoetan adierazi duen bezala, zergapekoaren neutraltasuna bilatzea bateragarria dela zerga-arauak betetzeko betebeharrarekin; izan ere, nolabaiteko oreka bilatu behar da neutraltasunaren (hori da erregularizazio osoari buruzko jurisprudentziak nahiz administrazio onak lortu nahi dutena) eta zergapekoek Ekonomia Itunean araututako ordainarazpen-eskumenari buruzko arauak betetzearen artean.

Dena den, kasu honetan ezin zaio fede txarrik egotzi zergadunari, hark irizpide homogeenarekin jokatu baitzuen bere eragiketa guztietan (establezimendu iraunkorra izatea). Beraz, neutraltasun-printzipioari lehentasuna emango zaio, eta ez ZAEAREN erregularizazio partzial eta inkoherenteari.

3.- Kasuari aplikatu beharreko administrazio-doktrina eta jurisprudentzia. Ebazpena.

Arestian adierazi dugun moduan, Nafarroako Arbitraje Batzordeak hau bezalako gatazka bat ebatzi zuen 2022ko otsailaren 18an (143/2021 espedientea), desberdintasun bakar batekin: S arduratzen zen karrozari-jarduketaz, eta hark Nafarroako Lurralde Ogasunari bakarrik ordaintzen dizkio zergak.

Nafarroako Arbitraje Batzordeak adierazi zuen Nafarroako Lurralde Ogasunak harrিতa zegoela ZAEAk bideratutako egiaztapen-prozedura batekin; izan ere, ZAEAk ontzat ematen du establezimendu iraunkorrik gabeko erakunde ez-egoiliar batek establezimendu iraunkorra duen erakunde gisa jokatzeta eta BEZaren aitortpenak erregularitasunez aurkeztea. Hala, establezimendu iraunkorraren jokabide fiskala onartzen du Zerga Agentziaren mesedetan denean, ez, ordea, kalterako denean.

Zentzu horretan, Nafarroako Arbitraje Batzordeak onartzen du VBk antolatu duen BEZaren tributazio-eredua eztabaidagarria dela; badirudi VBk egindako autobusen salmentetan subjektu pasiboa (enpresariak, entregatutako ondasunaren izaeragatik) ez litzatekeela bera izango, eragiketen hartzaileak baizik, subjektu pasiboa alderantzikatze arauaren ondorioz. Egindakoa desegiteak VBk bere bezeroei jasanarazitako BEZaren kuota guztiak itzultzea ekar lezake. Dioenez, hori oso deserosoa izango litzateke operadore guztientzat, baita zerga-administrazioentzat ere, eta ohartarazi du lotune horien ondorioz BEZ hori guztia Espainiako ogasunean ez sartzea gerta litekeela, Nafarroarekin egindako Hitzarmenean eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Itunean kasuan-kasuan adierazitakoaren mende legokeelako.

Horregatik, Nafarroako Arbitraje Batzordeak, aurkeztutako BEZaren aitortpen horiek oinarritzat hartuta, honako hau erabaki du: onartzea, establezimendu iraunkor itxurazkoaren rol horretan, berdin diola karrozari-jarduketa ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea den, eta, orobat, onartzea jasanarazpena zuzena dela. Eta jasanarazpena zuzena bada, ez dago zertan eztabaidatu BEZaren kuota horien kengarritasunari buruz, VBk aurkeztutako aitortpen horien bidez (beharrrik gabe ez ote dituen aurkeztu).

Ebazpen horrekin saihestu egingo litzateke erregularizazio osoari eta prozedurazko gainerako gaiei buruzko eztabaida, baita karrozari-eragiketarako ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea den kalifikatzeari buruzko eztabaida ere.

Auzitegi Gorenaren 2023ko ekainaren 7ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2023:2611) berretsi egin zuen Nafarroako Arbitraje Batzordeak 143/2021 gatazkari buruz emandako ebazpena.

Auzitegi Gorenak gogorarazi zuen benetako eztabaidagaia hau dela: kenkari horren kostua bere gain hartzeko erantzukizuna zein administraziori egotzi behar zaion, baina eztabaida horrek ezin du mugatu jasandako kuotak kentzeko eskubidea, BEZaren neutraltasuna hausten baitu. Horrenbestez, edozein konponbidek zergadunak kuotak azkar eta benetan itzultzea ekarri beharko luke, zeharkako mekanismoetara edo BEZari buruzko gaur egungo legerian jasotzen

ez diren bideetara jo beharrik izan gabe, horrek eragin dezakeen kostu edo atzerapenarekin.

Auzitegi Gorenaren ustez, inkongruentzia larria dago ZAEAREN portaeran; izan ere, VBk BEZa sartzea onartzen du (autobusen erosleei jasanarazia, jakinik bidezko sistema subjektu pasiboaren alderantzikatzea zela), eta jasandako BEZa ukatu, uste baitu, egoiliarra ez denez, jasanarazpena bidegabeta dela, eragiketarik ez direlako zergaren aplikazio-lurraldean kokatzen.

Horrela, bada, egokiena —edo agian ortodoxoena— litzateke hasieratik gaizki egindako guztia desegitea, hirugarrenen inplikazioarekin, kontuan hartuta VBk ez duela Espainian establezimendu iraunkorrik.

Eta hori guztia gatazkan nahastutako administrazioen arteko koordinazio-harremanei kalterik egin gabe, hau da, administrazioen artean egin beharreko zerga-zuzenketak eta -konpentsazioak ezertan eragotzi gabe, horiek gatazkaren eremu objektibotik kanpo geratzen baitira. Beraz, gerora bien artean harremana egon badaiteke ere, harreman horrek ezin izango dio kalterik egin VBren eskubideari.

Nafarroako Arbitraje Batzordean sortutako 143/2021 gatazkaren eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean planteatutako 41/2020 gatazka honen artean arrazoi berberak egonik, eztabaida ebazteko, ezinbestean heldu behar zaie Auzitegi Gorenaren 2023ko ekainaren 7ko Epaiaren irizpideei.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Aitortzea ZAEARI dagokiola VBk, ISCK 2015eko irailetik 2018ra jasanarazita, jasandako BEZaren ordainarazpena.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, VB SLri eta ISC.-eri.